

/ Nabarmenezkoak

- > Getxoko historian emakumeek egindako ekarpenari buruzko beka (2. or.)
- > Umore eta a cappella musikaren ikuskizuna (3. or.)
- > Europar Batasuneko eta atzerriko turismoa %15 hazi da (4. or.)

Esloveniako, Japoniako eta Ukrainako taldeak Aste Koralean (3. or.)



Dantza Plazan. Azaroak 3, larunbata, 19:00etan, Romoko Santa Eugenia Plazan, euskal dantzak bertoko taldeen eskutik. Antolatzailea: Zasi Eskola.

A-GENDA

Antzerkia. Azaroak 4, igandea, 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "La noche secreta", Xankoreren eskutik. XI. "Emakumeak eszenan". 3€.

Kontzerturako sarbideetan neurri bereziak ezarri dira trafikoan eta aparkalekuetan

Wolf Alice, Belako, La Casa Azul eta WAS Portu Zaharrean izango dira urriaren 31n MTVren eskutik

Algortako Portu Zaharrean datorren asteazkenean, urriak 31, 18:30etik aurrera Wolf Alice, Belako, La Casa Azul eta WAS taldeek kontzertua eskainiko dute MTV Music Week Bizkaia ekimenaren barruan.

Babes Zibila, Udaltzaingoa eta Ertzaintza, elkarlanean, arduratuko dira segurtasunaz eta bertako logistikaren funtzionamendu egokiaz. Sarrera dohainik izango da, edukiera bete arte. Udaltzaingoa eta Ertzaintzak osatutako patruila mistoek gune horren sarbideak kontrolatuko dituzte eta polizia autonomikoaren talde bereziek inguruko guneetan lan egingo dute, ekitaldia normaltasun osoz ospatu dadin.



Belako



La Casa Azul

Trafikoa eta aparkalekuak

Aldaketak trafikoan eta aparkalekuetan **hilaren 25ean, ostegun honetan**, hasiko dira. Azpiegitura ezberdinen muntaketa dela eta, egun horretan, Portu Zaharreko aparkaleku handiaren sarbidea itxiko dute eta ezin izango da bertan aparkatu ekitaldiaren logistikaren muntaketa osoa kendu arte. Arrazoi berberetatik, **astelehenean aurrera, hau da, hilaren 29tik aurrera**, ondoan dagoen aparkaleku txikia ere itxiko dute.

Asteartean, hilak 30, 06:30etik aurrera, Portu Zaharreko sarbidea itxiko da Igeretxeren biribilguneetik aurrera eta ezin izango da autorik utzi Ereagako aparkalekuan ekitaldia amaitu eta



Was



Wolf Alice

ordu batzuetara arte. Egun horietan bertako bizilagunen ibilgailuak baino ezin izango dira sartu, behar bezala egiaztatuta. Kontzertu egunean, asteazkena, **hilak**

31, 15:00etan Aretxondo kalea itxiko da trafikorako (garajea dutela egiaztatutako auzokideentzat izan ezik). Portu Zaharreko igogailu-zerbitzua eten egingo da 14:00etan eta 15:00etan

Genaratxu parkea itxiko da, Usategitik Portu Zaharreraino. Antolatzaileek herritarren laguntza eskatzen dute eta bertaratzeko garraio publikoa erabiltzea gomendatzen da.

Bigarren fasea urriaren 26tik azaroaren 11ra bitartean egingo dute

Zortzi proposamen lehenesteko 2019ko partaidetza-aurrekontuetan

Urriaren 26tik azaroaren 11ra bitartean Getxon egingo da 2019ko aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasea, herritarrek lehenengo fasean aurkeztu zituzten 263 ekarpenetatik onartutako zortzi proiektuak lehenesteko, hain zuzen ere.

Udal teknikariek ekarpenak eta iradokizunak aztertu ondoren, zortzi proposamen onartu dira, interes orokorrekoak direnak eta ekarpen gehien jaso dituztenak. Herritarrek hautatutako proiektu **GUZTIAK** baloratu eta puntuatu beharko dituzte (euren ustez, garrantziaren arabera).

2019ko PARTE-HARTZE IZAERAKO AURREKONTUAK. LEHENESTEKO PROPOSAMENAK

Proiektuen izena	Kostua g.g.b.	Nola parte hartu
Edukiontzien aldaketa pertsona guztiak erabili ahal dezaten	400.000€	* Inprimakiak betez eta entregatuz Herritarren Arretarako Bulegoetan eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kiroldegietan erabilgarri jarriko diren kutxetan.
Plazak egokitzea: altzariak, zabuak, argiak ...	100.000€	* Galdetegia (eskaneatutako eranskin gisa) helbide elektroniko honetara bidaliz: gobernuirekia@getxo.eus .
Villamonteko eta San Nikolaseko liburutegiak hobetzea	200.000€	* Udal webgunean erabilgarri dagoen inprimaki digitala betez: https://www.getxo.eus/gobierno-abierto .
Bidegorrien sarea zabaltzea hiriguneak lotuz	120.000€	* Inprimakia betez eta sartuz Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokien inguruan horretarako jarriko diren postontzietan.
Turismo eta osasun ibilbideetako seinaleak hobetzea	60.000€	* Informatzeko jarriko diren karpeta hurbilduz hurrengo egunetan: urriak 27 Areetako Geltokia plazan, urriak 29 Bidezabalgo geltokiaren ondoan dagoen plazan eta azaroak 5 Algortako Geltokitik hurbil dagoen plazan. 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.
Algortan pertsona nagusientzat gune bat egokitzea	200.000€	
Txakurren gorotzak kontrolatzea	300.000€	
Lorategiak hobetzea eta gune berdeak handitzea	150.000€	



URRIAK 25 OSTEGUNA

Hitzaldia. Getxo Elkartegian (Ogoño 1, Areeta), 19:00etan, "Kultur ibilbideak, Getxoko arkitektura eta paisaiak", Ondarearen Europako Jardunaldien barruan. Antolatzailea: Turismo Bulegoa. Informazioa eta erreserbak: 94 491 08 00. Leku-kopuru mugatua.

Hitzaldia. RKE-Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "La literatura de las cicatrices", Josune Muñozen eskutik (Skolastika). "Mujeres creadoras de cultura" hitzaldi-zikloaren barruan. Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako giza- eta kultura-elkartea. Hitzaldia: "Combinación de aromas y sabores en alimentos. ¿Arte o ciencia?". Hizlaria: Marcos Ferrer. 18:15ean, Romoko San Jose elizako egoitzan. Sarrera dohainik.

URRIAK 26 OSTIRALA

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, Fuensanta R. Urienen "A media distancia" (olioak). Hilaren 20ra arte.

Hitzaldia. Punta Galea Tx.E.-ren txokoan (Illeta 10, Algorta), 19:00etan, "Hortensias. Arte y pintura impresionista y barroco holandés". Hizlaria: Gonzalo González. Sarrera dohainik.

URRIAK 27 LARUNBATA

Umora eta a capella musikaren ikuskizuna. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "Al natural: sin instrumentos añadidos", B Vocal taldearekin. Sarrera: 15€.

Skating Race. 08:00etatik 13:00etara, Kirol Portuan.

URRIAK 28 IGANDEA

Zumbaton. 10:30etik 13:30era, Kirol Portuan, Club Rítmica Getxoren eskutik.

URRIAK 29 ASTELEHENA

38. Aste Korala. Algortako Erredentore elizan, 19:30ean, Vokalna Akademia Ljubljana (Eslovenia). Sarrera dohainik.

Kontzertu didaktikoa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean "La historia del Jazz", Didi Jazz taldearekin. Sarrera dohainik.

URRIAK 30 ASTEARTEA

38. Aste Korala. Algortako Erredentore elizan, 19:30ean, Kinokai Youth Kanami Choir (Japonia). Sarrera dohainik.

Hitzaldia. Romo Kultur Etxean-RKE, 19:00etan, "Isabel Allende y Paula", Josune Muñozen eskutik (Skolastika). "Mujeres creadoras de cultura" hitzaldi-zikloaren barruan. Sarrera dohainik.

URRIAK 31 ASTEAZKENA

38. Aste Korala. Algortako Erredentore elizan, 19:30ean, Orya (Ukraina). Sarrera dohainik.

Erakusketa. Algortako Torrene Aretan, "Postcapitalism Relics", Paco Chaniveten eskutik. Getxoarte 2018 dela eta. Azaroaren 24ra arte.

Versadas olerki kluba. 2018/19 denboraldiaren hasiera. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, norberaren zein beste batzuen olerkiak irakurri edo entzun nahi dituzten olerki zaleen saioa. Oraingo honetan, Antonio Gamoneda.

AZAROAK 3 LARUNBATA

Errezitaldia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Jose M^a Gonzálezen (baritonoa) eta Pía Rojasen (piano jotzailea) emanaldia. Sarrera dohainik (gonbidepenarekin, Musika Eskolan hartu behar dena).

Dantza Plazan. Romoko Santa Eugenia Plazan, 19:00etan, euskal dantzak Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin. Antolatzailea: Zasi Eskola.

AZAROAK 4 IGANDEA

Antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:00etan, "La noche secreta", Xankoreren eskutik. Sarrera: 3€. XI. Emakumeak eszenan.

Proiektuak azaroaren 26ra arte aurkeztu ahal izango dira Getxoko historian emakumeek egindako ekarpenaz beka

Azaroaren 26ra bitartean egongo da zabalik *Emakumeek Getxoko historiari egindako ekarpena* izeneko ikerketa bekaren laugarren dealdian aurkezteko epea. Bekaren helburua da emakume getxotarrak historia eta bizitza kultura, sozial, ekonomiko edota politikoan egin duten ekarpena berreskuratzea eta ezagutzera ematea. Lanak aztertuko duen gaia emakumeek Getxoren historian izan duten paperari buruzko informazioa eskaintzen duen edozein ikerketa izango da, emakume bati buruzkoa modu indibidualan, emakume talde bati buruzkoa edo Getxoko emakumei buruzkoa kolektibo gisa. Beka norbanakoak eska dezake edo talde bezala ere egin daiteke. Ikuspegia historikoa, hezkuntzakoa, lanekoa, ekonomikoa,

antropologikoa... edo diziplina anitzekoa izan daiteke. Bekara aurkeztu nahi duten pertsonak gehienez 15 foliokoa izan beharko den proiektua aurkeztu beharko dute, eta horretan besteak beste, titularra, edukiak, gaiaren justifikazioa, helburuak eta metodologia agertu beharko dira. Euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da. Proiektuak Udaleko erregistro nagusian aurkeztu beharko dira, HABetan edo legeak aurreikusitako tokietan. Hautatutako proiektua lehiaketaren ondoko hilabeteetan egin beharko da. Dotazio ekonomikoa 10.000€koa da, eta %75ekoa izango da proiektua aurkezten denean eta gainerakoa, %25, behin betiko txostena ematen denean.

AccionADAS proiektua, emakume migratzaileentzat

Getxoko Moviéndote gizarteratzea eta hiritarren parte-hartzea bultzatzeko elkarteak, Accion-ADAS izeneko egitasmoa abiatuko du. Horren helburua da emakume migratzaileen kolektiboaren integrazioa, enplegarritasun ibilbide bat diseinatu eta martxan jartzearen bitartez. Izan ere, zenbait tailer egingo dira aipatutako kolektiboaren enplegarritasuna sustatzeko hainbat teknikaren bidez (mentoring, Drama learning...); tailer horiek osatzeko trebakuntza ikastaro bat antolatuko da, *Laguntzaile Pertsonala* delakoa, zaintzari dagokionez paradigma aldaketa bat dakarrena (aniztasun funtzionala giza eskubideen

arazotzat duen paradigma, eta ez beren gizarteratzea gauzatzeko sendatu beharreko pertsona gaixoen kontutzat duena). Programa doakoa da erabat, eta 9 hilabeteko iraupena dauka; zuzentzailearen 30era arte garatuko da. Leku kopuru mugatua dauka: 20 parte-hartzaile. Programan parte hartzeko bi modu daude: boluntario gisa, kolektibo migratzaileen orientatzailean eskarmenturik izatekotan, edo emakume bezala, espainiar herritartasuna ez badu. Beharrezkoa da e-maila bidaltzea asociacionmoviendote@gmail.com helbidera dagokion informazio guztia jaso ahal izateko.



Mahai-ingurua: elikadura osasungarriaren arloko berrikuntza eta ekintzailetza

Ekonomia Sustapenerako arloak eta Getxo Kirolak-ek bultzaturiko Getxo Erika programaren harira, mahai-inguru berri bat antolatu da datorren asteartean, urriak 30, Elkarriketa Osasungarriak zikloaren barnean. Oraingo honetan, topaketa elikadura osasungarriaren eremuko berrikuntzan eta ekintzailetzan oinarrituko da. Horretarako, honako lagun hauek etorriko dira: Mikel González, Naia enpresakoa, entsaladak eta barazkiak prestatzen dituen proiektu ekologiko eta sozialean; Sandra Erazu, Andra Mariko Batzokikoa, atea berriro ireki dituen tokiko produktuetan oinarritutako eskaintza gastronomikoarekin; Ander Méndez, Hola plateraren sortzailearikoa, kontsumituko diren kalorien %30a xurgatzeko gai dena; eta Eduardo Elorriaga, Hermeneus enpresakoa, produktuen zuzeneko erosketara digitala edo jate txerak iraukorretan erreserbatzeko aukera ematen duena. Topaketa Getxo Elkartegian (Ogoño 1, Areeta) izango da 18:30ean, doakoa da baina etortzea kaixo@getxoelika.eus helbidean baieztatzea gomendatzen da. Informazio gehiago: www.getxoelika.eus.

Romo Plataforma: errebindikazio berriak

Romo plataformak bere errebindikazio-jarduerari eutsi dio berriro, eta hainbat entitate getxotarrari deitu die "udalerrri jasangarriaren" aldeko nahiekin bat egiteko, entitateak berak aditzera eman duenez. Aurreko astean burutako topaketan, Romon Ibar Nagusien Etxea elkarteak erabiltzen duen Lope de Vega kaleko 12ko eraikinaren parte bat erabili gabe edukitzearen kontrako agiria onartu zen eta iragarri ziren mobilizazio berriak "instalakuntza horiek berehala erabiltzeko".

Udalak, bere aldetik, elkarrizketarako eskua luzatu du berriro eta agertu du "bere harridura mobilizazioak iragarri izanagatik, aurretik udal Gizarte Zerbitzuetara aipatzen dituzten erabilpen sozial horiek proposatzera jo gabe, Udalak hirugarren esparruko elkarrekin eta entitateekin izandako kolaborazioan ibilbide luzea duenean".

Gogoratu, udal gobernuak aipatutako eraikinean gazteentzako babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko asmoa duela.

HAPO Ormazan

Udalak iragarri du jendaurreko informazio-izapide berri bat irekiko duela datorren urriaren 31ra arte Ormazaneko esparruan hiri-lurzorua garatzeko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualari dagokion espedientearen.

Ez arri den epealdi berriaren barruan espedientea aztertu eta komenigarritzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango dira, udal Hirigintza alorrean (Santa Clara egoitza).

"Sense Lan-CD" Berrikuntza Jardunaldia

Igeretxe Hotelean egingo da datorren azaroaren 17an, larunbata, *Sense Lan-D. Descubre tus sentidos* Berrikuntza Hezitzaile-Terapeutikoari buruzko Jardunaldia. Udalaren aholkularitza izan du ekimen horrek. Goizean, gai horretan adituak diren pertsonak honako kontu hauek izango dituzte hizpide: familia-hezkuntza *Las Cartas de la Tranquilidad* goiburupean; oinarritutako estimulazioa *El mundo y yo, el trabajo sin material* goiburupean; *La psicología del comer-estudio realizado con presonas con Alzheimer eta Intelligencia emocional a través de los sentidos*. Arratsaldean, tailerrak eta eztabaidarako gunea izango dira. Argibide gehiago eta inskripzioak: <https://ausarti.com/sense-lan-d>



- 30 urteko neska arduratsua, erreferentziekin, lan bil daibil garbitzeko edo adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka, kanpoko edo barneko. Berehala hasteko prest. Tel.: 640 01 75 85.

- Neska prest dago etxeak garbitu edo umeak eta adinekoak zaintzeko. Barneko edo orduka. Interesdunek 648 525 280-ra deitu.

- Neska, 35 urtekoa, prest dago orduka lan egiteko garbitzen edo umeak eta adinekoak zaintzen. Eskarmentuarekin, erreferentzia oso onekin eta paperak behar bezala. Interesdunek 622 541 636-ra deitu.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: Amaia Agirre Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza,

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Bostrian Bilbao, S.L. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua Gordailu legala: BI-388-87



Esloveniako, Japoniako eta Ukrainako taldeak Aste Koralean

Urriaren 29tik 31ra bitartean, Algortako Erredentore elizan, Aste Koralean 38. edizioa egingo da. Kontzertuak 19:30ean hasiko dira eta sarrera dohainik izango da.

Astelehenean, hilak 29, Ukrainako Vokalna Akademia Ljubljana arituko da. 2008an sortu zen eta herrialde osoko abeslari eskarmentudunek osatzen dute. Stojan Kuret da bere zuzendari artistikoa eta Getxon Aco Bisevic tenorea eta Breda Zakotnic piano-jotzailea izango dira gonbidatuak.

Asteartean, hilak 30, Japoniako Kinokai Youth Choir Kanami taldearen txanda izango da, ahots mistoen gazte taldea

“A media distancia”, olio-pinturak Algortan

Urriaren 26tik azaroaren 10era bisitatu ahal izango da Algortako Kultur Etxean *A media distancia* goiburuko olio-pinturen erakusketa, Fuensanta R. Urienena. Pintorea Bizkaiko Elkarte Artistikoko kidea da; hainbat erakusketa egin ditu, taldeka zein bakarka, Euskal Herrian eta hemendik kanpo ere. Artistak berak azaldu duenez, “neure artelanetan inguruko tokiak birsortzen ditut. Horien gertutasunak sentimenduak pizten ditu nigan, konposizio kromatiko askotarikoaren bitartez irudikatu nahi ditudanak. Koloreak eragin handia dauka nigan konposizioa hautatzerakoan. Niretzat funtsezko alderdia da sorkuntzan; nire olio-pinturek poztasuna, positibismoa....isla dezaten nahi dut”.



Hiroki Fujiik zuzenduta. 60 bat kidek osatzen dute, denak unibertsitateko ikasleak eta 30 urte arteko abeslari gazteak.

Asteazkenean, hilak 31, Ukrainiako Oreyka-k itxiko du zikloa. 1986an sortua, munduko abesbatza talde orijinalenetakoa da eta azken 25 urteotan eutsi dio nazioartean kalifikazio altu horri.



Umore eta a cappella musikaren ikuskizuna

Larunbatean, urriak 27, Zaragozako B Vocal boskoteak *¿A cappella o a pelo?* ikuskizuna eskainiko du Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Proposamen artistiko desberdina da, ikusle orori zuzenduta eta lan horretan musikak, harmoniak, umoreak, bertuosismoak eta taularatzearren ikusgarritasunak ikuslearen arreta bereganatuko dute, hasi-hasieratik amaiera arte. Ahotsa elementu protagonista bakarra duen emanaldi hau 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 15 €koa da.

Prestakuntza tailerrak Euskaraldiari begira

Euskaraldia Getxo batzordeak prestakuntza saioak antolatu ditu azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohi-turak aldatzearen bitartez euskararen erabilera sustatu nahi duen Euskaraldia ekimenari begira. Ahobizi (lehenengo hitza euskaraz) tailerra urriaren 30ean, Algortako Azebarri kultur elkartearen eta azaroaren 8an, Areetako Getxo Elkartegian, izango dira, biak 19:30ean hasita. Belarriprest (ahal duena euskaraz) figurari buruzko tailerrak urriaren



Jazz kontzertu didaktikoa

Datorren astelehenean, urriak 29, 19:30ean, kontzertua antolatuko da Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan DIDI JAZZ taldearen eskutik. Taldea Musika Eskolaren Jazz arloaren baitan sortu zen kontzertu didaktikoak eskaintzeko helburuarekin.

Jazz zazpikotea da (tronpeta, saxo altua, saxo tenorea, gitarra, pianoa, kontrabaxua eta bateria). Manuel Jesús Gómez aktore bihurtzen da, *Con-go* irudikatuz, jazzaren historiaren ardatz nagusia: esklabotzatik gaur egun arte. Eta atze-oihal gisa, XX. mendeko Amerikako historia: arraza-arazoak, aurrerapen teknikoak, gatazkak... he-



rrialde baten kulturen arteko fusioa azpimarratuz, kulturari eman dion ordain onenetarikoa, gaur egun jazz izenaz ezagutzen duguna. Kontzerturako sarrera dohainik da.

Ahots eta piano errezitaldia, azaroaren 3an

Datorren larunbatean, azaroaren 3an, errezitaldia egingo da Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan: Jose M^a González Estoquera baritonoa eta Pía Rojas Torija pianista arituko dira. Lehenak, bere musika jarduna bateragarri egiten du Filosofiaren irakaskuntzarekin; eta bigarrena Getxoko zentro horretako piano eta Musika-hizkuntzako irakaslea da. Biek ala biek curriculum handia daukate, baita ibilbide luzea ere, nor bere musika esparruan.

Errezitaldia 19:30ean hasiko da eta bertan, R. Schumann, J. Brahms eta G. Mahler musikariaren lanak interpretatuko dituzte. Gonbidapenaren bitartez sartu ahal izango da saiora eta txartela Musika Eskolan hartu beharko da.



Musika ikuskizunak haurrentzat Areetan

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan bi ikuskizun musikal egongo dira azaroan, 6 urte baino gutxiago duten umeentzat eta beraien familientzat. Sarrerak Eskolaren txarteldegian daude salgai.

Azaroaren 5ean, areto nagusian, Olga Sánchez musikoterapeutak *Musikume* koordinatuko du, erritmo- eta melodia-jolasen bitartez musika gerturatzeko elkargunea. Ikuskizuna, elebiduna, haurrei, 0-3 urte bitarteko umei eta euren gurasoei dago zuzenduta. Saio bi izango dira, 45 minutukoak, 17:00etan eta 18:00etan.

Hilaren 29an, Olga Sánchezek, Raúl de la Cruz irakasle eta idazlearekin batera, *Kontari eta Kantari* ipuin kontaketa aurkeztuko du, instrumentuz eta zuzeneko musikaz egiten den sormenezko esperientzia baten bidez. 2 eta 6 urte arteko umei eta euren gurasoei zuzenduta, bizipen tailerra da, eta bertan ahotsa, instrumentuak eta gorputza erabiltzen dituzte inprobisaziotik, sormenetik eta mugimendutik abiatuta eta irakurketaren eta zuzeneko musikaren bitartez.



Datuek desestazionalizazioan hobekuntza baieztatzen dute Europar Batasuneko eta atzerriko turismoa %15 hazi da

Turismo Bulegoan, -Ereagako Bulegoan eta Bizkaiko Zubiko Informazio Turistikoaren Gunean-, 23.343 pertsona atenditu zituzten udan (ekainairaila), horietatik %83 turistak ziren (Bizkaitik ez zetozenak). Udalerrian inoiz izan den turista kopuru altuena jaso da lauhileko horretan, Europar Batasuneko eta atzerriko turismoaren %15eko hazkundeak erakusten du joera positiboa urtean zehar ditugun datu turistikoaren fluxuen banaketan.

Estatuko zenbait lekutatik (-%18) eta Euskaditik (-%11) datozen pertsonen kopuruak behera egin du; hala ere, nahiko igo dira beste merkatu batzuk, besteak beste Erresuma Batua (+%28), Frantzia (+%3) eta Alemania (+%50). Estatu Batuetatik etorritakoak ere igo ziren (+%33), Italiatik eta Holandatik etorritakoak (+%40) eta berreskuratzen dira Portugal (+%65) eta Irlanda (+%49). Datu horiek desestazionalizazioaren aldekoak dira urteko datu turistikoaren fluxuen banaketan, Getxon turismo jasagarria lortzeko helburuetariko bat. Hirugarren hiruilekoan (uztaila-iraila), turismo sasoi nagusia, kontzentrazioa jaitzi zen %56,64tik %54,17ra urtearen lehenengo hiruilekoaren alde (urtarrila-martxoa).

Turismo Bulegora datozen pertsona gehienek udalerriko oinarriko informazioa ekartzen dute eta hori Interneten bidez lortu dute edo guk Getxoko eta Bilboko hoteletan eta beste Turismo bulegoetan eskaintzen ditugun laguntza planei esker. "Getxon horretan lan egiten ari gara", diote Turismotik,



"personak dauden lekuetara joan nahi dugu gure udalerrira erakartzeko. Orain gure esfortzu handiena da gure webgunea eta sare sozialak ahalik eta eguneratuen izatea. Izan ere, Facebook-en @GetxoTurismo 5.820 fan ditugu jada (+%81) eta @VisitGetxo-n 2.628; Instagram-en, aldiz, 1.283 jarraitzaile ditugu".

Baliabide turistikoak

Getxo Aquarium-en eta El Abra-Getxo Kirol Portuan turistak kopuru aurreko udarekin alderatuta mantendu egiten da. Getxo Aquarium-ek 9.614 pertsona hartu zituen (-%0,21), gehienak Bizkaikoak; Kirol Portuan, aldiz, 189

iragaitzako belaontzi porturatu ziren (+%2), gehienak atzeritik etorritakoak (%86); haietariko % 65 Frantziatik etorri ziren, %11 Erresuma Batutik eta %8 Belgikatik.

Bizkaia Zubiak, bere aldetik, 23.274 bisitari jaso zituen, joan den urtean baino %49 gutxiago. Jaitsiaren arazoia izan liteke agian oinezkoentzako ibiltokietara igotzen diren igogailuek matxura asko izan dituztela eta, hori dela eta, zerbitzuz kanpo egon dira egun askotan. Gune horretan ere Europar Batasuneko eta atzerriko turismoak gora egin zuen, %27tik %32ra eta behera egin zuen estatukoak, %56tik %49,6ra.

KIROLAK

4. Getxo Skating Race

Ereagako hondartzan eta Kirol Portuan egingo da larunbat honetan, urriak 27, 4. Getxo Skating Race, gurpil-lerroko irristaketa txapelketa. Hiru proba egingo dira horren barruan: bata herrikoa, 9 kilometrokoa, 10:00etan; lasterketa federatua, 20 kilometrokoa, 10:45ean; eta, azkenik, eskola-lasterketa, 2,8 kilometrokoa, 11:45ean hasi eta ekitaldiari amaiera emango diona. Basroller klubak antolatu du lasterketa, Getxo Kirolak, Bizkaiko Patinaje Federazioa, Getxo Atletismo Kluba eta Getxoko Gurpil-Lerroko Irriaketa Klubaren laguntzarekin. Lasterketa dela-eta, **trafikoa moztu egingo da 08:30etik 12:00ak arte** Ereaga hondartzara eta Kirol Portura sartzeko bideetan. Izen-ematea: <https://www.herrickrosa.eus> Argibide gehiago: basroller@gmail.com.

Zunba-maratoia

Igande honetan, urriak 28, zunba-maratoia antolatuko da Kirol Portuan (Cocoon Beach dantzalekua) egingo da. Getxo Gimnastika Klubak antolatutako saioa 10:30ean hasi eta 13:00ean amaituko da. Inskripzioa egiteko 6 euro ordaindu behar da. Interesdunek saioa egingo den egun berean eman dezakete izena, nahiz eta aurrez egitea gomendatzen den posta elektronikoa helbide honetara idatzita: club_ritimica_getxo@hotmail.com.

ETORKIN JATORRIZKO FAMILIAK*
FAMILIAS* DE ORIGEN EXTRANJERO
+

FAMILIA* AUTOKTONOAK

Etxe batean, non familia batek, beste familia bati harrera egiten dion.
Mahai bat eta jaki gozoak.
=

Una casa en la que una familia recibe a la otra.
Una mesa y buenos alimentos.

* FAMILIA, ZUK NAHI DUZUN FAMILIA IZATEA DA!!!
* ¡¡¡FAMILIA ES LO QUE TÚ QUIERAS QUE SEA FAMILIA!!!

NOIZ?
2018ko azaroaren 11an, 14:00etan.
¿CUÁNDO?
11 de noviembre de 2018 a las 14:00h.

AUKERATU NOLA PARTE HARTU NAHI DUZUN
Familia anfitrioi bezala zure etxean.
Gonbidatutako familia beste etxe batera.
Dinamizatzaile modura **BIZILAGUNAK** bazkarietan.

ELIGE CÓMO QUIERES PARTICIPAR
Familia anfitriona en su casa
Familia invitada en otra casa
Dinamizador/a de comidas **BIZILAGUNAK**

EMAN IZENA - INSCRÍBETE
www.getxo.eus/bizilagunak
Ainhoa 622 433 085